

Makina bat ekintza sail ezberdinek, gaztetxoek neguko oporrez gozatzeko

Larunbatean emango diote hasiera 'Neguko oporretan zer?' programa bereziari. Txikienek zinea izango dute, 16:30etan hasita, Biterin; eta gazteenek, aldiz, txistor jana, Gaztelekuan, 16:30ak eta 20:30ak bitarte.

HERNANI UDALA

Bihar hartuko dituzte neguko oporrek Hernaniko ikasleek, eta horiei zuzenduta, hain zuzen, aurkeztu du egitaraua Udalak. Beste behin ere Udaleko «sail ezberdinek adostutako ekintzek» osatzen dute *Neguko oporretan zer?* egitaraua, Oier Agirresarobe euskara eta hezkuntza zinegotziak adierazi bezala. Larunbat honetan, abenduaren 21ean hasita, urtarrilaren 4ra arte jasotzen ditu ekintzak, hain zuzen.

Denetarik, denentzat

Urteroko ekintzaren berri eman zuen, baita ere, Agirresarobek: «jarduera fisikoa eta kirola sailak antolatuta, neguko ludoteka egingo dute kiroldegian, lau egunetan, goizez». Hilaren 23, 26, 27 eta 30ean izango da hori.

Bertan izango du bere txokoa liburutegiak: «urtero bezala, liburu betetako karroak eramango ditugu», azaldu zuen Rakes Gonzalez udal liburutegiko arduradunak.

Baina beste bi ekintza izango dituzte, baita ere: komiki tailerra, Ainara Azpiazu 'Axi'ren eskutik, eta *Kaxkoko dendak: lehen eta orain* lehiaketa. «Lehiaketarekin herriari bizia ematen diotenei dendei omenaldia egin nahi genien, eta herrian dagoen kezka bat ere ikusiarazi dugu»,



Liburutegian aurkeztu zuten udal zinegotzi eta teknikariek aurtengo neguko oporren egitaraua.

azaldu du Gonzalezek.

Urtero egiten duten lehiaketa bat da; herritarrek 8 galderei erantzun behar diote, eta horretarako liburutegiko bibliografiara jo. Aurten, ordea, «zailtasunak» izan dituzte, «ez dagoelako ezer dokumentatuta». Hori horrela, «herriko dendarekin eta jendearekin» osatu dituzte testuak. Urtarrilaren 3ra arte izango da aukera, parte-hartzeko. 3 erosketa-bono zozketatuko dituzte, galdera guztiak asmatzen dituztenen artean.

Liburutegiak gain, gozatzeko aukera gehiago eskainiko ditu Biterin, Nagore Irastorza kultura teknikariak azaldu bezala. *Kikoriki* eta *Elkano. Lehen mundu bira* pelikulak jarriko dituzte; eta *Burbuilak* eta *Lau urtarok: zer ziren eta zer dira!* antzerkiek gozatu ahal izango da.

Haur eta gazteria sailak ere antolatu ditu ekintzak. Argigrama tailerra egingo du familia osoarentzat; baita hainbat ikastaro gazteentzat ere. Horrez gain, Gaztelekuak ekintza eta irteera bereziak egingo ditu. **K**

EGITARAUA

ABENDUAK 21

16:30 Haurtegi zinea: 'Kikoriki'. Biterin.

ABENDUAK 22

16:30 Haurtegi zinea: 'Kikoriki'. Biterin.

ABENDUAK 23

10:00-13:00 Ludoteka. Kiroldegian.
16:00-18:00/18:00-20:00 'Argigrama'. Biterin. Izena eman behar da. Familia osoarentzat.

ABENDUAK 26

10:00-13:00 Ludoteka. Kiroldegian.

ABENDUAK 27

10:00-13:00 Ludoteka. Kiroldegian.
18:00 Haurtegi zinea: 'Burbuilak'. Biterin.

ABENDUAK 28

16:30 Haurtegi zinea: 'Elkano. Lehen mundu bira'. Biterin.

ABENDUAK 29

16:30 Haurtegi zinea: 'Elkano. Lehen mundu bira'. Biterin.

ABENDUAK 30

10:00-13:00 Ludoteka. Kiroldegian.
11:00 Komiki tailerra. Izena eman behar da. Liburutegian.

ABENDUAK 31

11:00 Komiki tailerra. Izena eman behar da. Liburutegian.

URTARRILAK 2

11:00 Komiki tailerra. Izena eman behar da. Liburutegian.
18:00 Haurtegi zinea: 'Lau urtarok: zer ziren eta zer dira!'. Biterin.

URTARRILAK 3

11:00 Komiki tailerra. Izena eman behar da. Liburutegian.
13:00 'Hernani, Kaxkoko dendak: lehen eta orain' lehiaketaren emaitza eta zozketa.

*12-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako egitaraua: 'www.kronika.eus'

'Gauekoak' gaur, Kukai taldeak

HERNANI BITERI KULTUR ETXEA

Gauekoak emanaldia eskainiko du gaur Biterin, Kukai Dantza Taldeak, Mireia Gabilondo eta Jon Mayaren zuzendaritzapean. Jon Maya dantzariaren, eta Xabi Bandini eta Arkaitz Miner musikariren eskutik, dantza, musika, ilustrazioa eta literatura uztartzen dituen emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute hernaniarrek. Iluntzeko 20:00etan izango da, baina sarrerak astelehenetik agortuta daude.

Joku tailerra gaur, Goxalik

GOIZUETA GOXALI

Joku tailerra egingen dute gaur 3-14 urte bitarteko goizuetarrek Goxali liburutegi-ludoteka zerbitzuaren eskutik. Arratsaldeko 17:00etan hasita izanen da.

Argi mozketa, Udalak

GOIZUETA UDALA

Goizuetako Udalak jakinarazi du gaur goizeko 09:00etatik 12:00etara argia moztu egingen dutela. Asteleheneko haize bortitzak eragindako matxura behin betiko konponduko dute.

Santo Tomas, Zelabiden ere

HERNANI ZELABIDE

Santo Tomas eguna ospatuko dute bihar Gabriel Zelaia plazan, Zelabideko auzo elkarteak antolatuta. Arratsaldeko 18:00etan hasita, udaletxeko areto nagusian.

Plenoa, bihar

ASTIGARRAGA UDALA

Gabonetako oporrak direla-eta, aurreratu egin dute Astigarragako Udaleko plenoa. Bihar izango da, arratsaldeko 18:30etan hasita, udaletxeko areto nagusian.

AKELENEA
Erretgia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Larunbatetik urtarrilaren 5era, itxita (biak barne).

Urtarrilaren 6an berriz ere zuekin!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

OGI BERRI

OKINDEGIA GOZOTEGIA

Kontxa etxeberria 2
Astigarraga
943 12 64 24

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KONBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

GABON HAUETAN
OPARITU EDERTASUNA
ETA ONGIZATEA

nibiru
UNISER EDERGINTZA ZENTROA

SPA
Tratamenduak
Mikro pigmentazioa
Masajeak

Indiba
Tratamenduak
Manikura
Pedikura
Fotodepilazioa
Automakillaje
Ikastaroa

IZPIZUA, 1 HERNANI
943 24 35 60
www.nibruederdintza.com

EGURALDIA GAUR Hego haizea ibiliko da gaur, eta hodeiak nagusi izango dira. Atzo baino eguraldi ilunagoa izango da gaurkoan, eta baliteke eremu batzuetan euri apur bat egitea. **Min.12° / Max.19°**

BIHAR Aldaketa biki batzuk, izango dira gaurkoan. Ostegun gau eta ostiral goizalde bitartean, fronte baten etorrerarekin haizea mendebaldera aldatuko da. **Min.8° / Max.15°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Eraikuntza Azko Udala

GOZUTAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

GOZUTAKO FORU ABANDIA

ERREZERBAK

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

2020ko aurrekontuak, eztabaidagai

Gaur, arratsaldeko 18:00etan, ez ohiko Plenorako deia luzatu du Udalak; beti bezala, pleno-aretoan egingo da, bigarren solairuan.

HERNANI OSOKO BILKURA BILERA

Gaur arratsalderako, Osoko Bilkura bilerarako deia luzatu du Udalak. Arratsaldeko 18:00etan izango da, pleno aretoan, bigarren solairuan.

Hainbat erabaki hartuko dira gaurko plenoan, eta 14 gai izango dituzte erabakitzeko eta aztertzeko; besteak beste,

garrantzitsuenak, 2020eko aurrekontu orokorra. PSE-EEK dagoeneko iragarri du abstenitu egingo dela. Dena den, gehien-go osoa duela-eta, EH Bilduren 11 botoekin onartu ahal izango dute.

Beste hainbat gai, ere bai Nahiz eta 2020ko udal aurrekontua izan gai potoloena, beste

hainbat gai ere izango dituzte mahai gainean: Hernani-Astigarraga eskola kirola eredia babestea, Musika Eskolaren eta Udal Euskaltegiaren kontu bana, 2020-2022 diru-laguntzak onartzea, baita Zubietako errauste-planta ere. **K**

PSE-EEK dagoeneko iragarri du abstenitu egingo dela 2020ko udal aurrekontuen aurrean.

Aimar Elozegi Ansaren oroimenean, mahai-ingurua

Gaur arratsaldeko 18:00etan, transexualitatea eta gatazka normatiboei buruzko mahai ingurua antolatu da Biterin, Aimar Elozegi Ansaren oroimenean.

HERNANI TRANS ZIKLOA

Gaur arratsaldeko 18:00etan, Transexualitatea eta gatazka normatiboei buruzko mahai ingurua egongo da, «Gordetzea ezinezkoa da!» lelopean, eta Aimar Elozegi Ansaren oroimenean. Bi parte hartzaile egongo dira mahai inguruan, hala nola, Josebe Iturrioz eta Brayan Altimasberes. Moderatzailea Kattalin Miner izango da eta euskeraz izango da, hala ere, itzulpen zerbitzua ere eskainiko da, hau guztia Hernaniko Berdintasun Kontseiluaren eskutik.

«Orain 12 urte egin zuen bere



Maiatzean aurkeztu zuen Kattalin Minerrek, Moio: Gordetzea ezinezkoa zen.

buruz beste, Aimar transexual gazteak. Herritar askok gogoratzen dugu gertaera hura, herrian oso entzutetsua eta gogorra izan baitzen, eta transexualitatearen gaia mahai gainean jarri baitzen», azaldu dute.

Kontseiluak nabarmendu du, urte haietan «hainbat ekimen eta ekitaldi» egin zirela, «Aimar oroitu eta transexualitatearen gaia lantzeko. Azken urteotan, aldiz, ez da horrelakorik izan». Eta horregatik, Kattalin Minerrek, Moio: Gordetzea

ezinezkoa zen liburua sortu eta argitaratu zuen, eta maiatzean egin zuen aurkezpena. Horrez gain, trans berto saioak ere egin zituzten.

Mahai ingurua, gaurkoan

Gaur, ordea, Aimar Elozegi Ansa oroitzeko eta transexualitatea eta gatazka normatiboei buruz mintzatzeko, mahai ingura antolatu da, Biterin, arratsaldeko 18:00etan. Bertan, hainbat aditu egongo dira, euren esperientziak kontatuz. **K**

Bat egingo dute sei abesbatzek, gaurkoan

Gaur arratsaldeko 20:00etan, Gabon Kanten Jaialdia egingo da San Joan Bataiatzailearen parrokiaren.

HERNANI GABON KANTEN JAIALDIA

Gaurko eguna abesten amaituko dute askok, Gabon Kanten Jaialdia antolatu baitu, Hernaniko Kantuz Abesbatzak. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da, San Joan Bataiatzailearen parrokiaren. Aurreko urtetan bezala, hainbat abesbatzek hartzen dute parte gaurko egunean, hain zuzen: San Joan Parrokiakoak, Musika Eskolako gazte-txoeak, Dakapok, Goiz Eguzkik, Ozenkik eta Kantuz abesbatzak.

Koru bakoitzak bina abesti kantatuko dituzte.

San Joan Bataiatzailearen parrokiako abesbatzak, *Haurtxo txiki* eta *Esta noche Jesús ha nacido* abestuko dute, Juan José Arregiren zuzendaritzapean. Musika Eskolako gazte-txoeak, ere bi abesti: *Zapata txuriak* eta *Neguaren baitan*, Amaia Aldalurrek zuzenduta. Dakapok: *Gizon on bat* eta *Non degun non abestiak* kantatuko dituzte, Amaia Aldalurren zuzendaritzapean. Goiz Eguzkik: *Belengo artzai onak* eta *Gaua argitu da*, Xabier Zubimendik zuzenduta. Ozenkik; *Eguberriko potpourria* abestuko du, Imanol Kamioren zuzendaritzapean. Eta Kantuz abesbatzak: *Haur eder baten bila* eta *Elurra, elurra, elurra* abestuko du, Igor Arroyok zuzenduta. **K**

Beat box tailerra bihar, Gaztelekuan

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Tailer berezia egingo dute bihar Astigarragako Gaztelekuan. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, *Orodrethek* Beat box tailerra eskainiko du, hau da, instrumenturik gabe, eztarriarekin eta ahoarekin musika nola sortu erakutsiko du. Debalde izango da.

Bertso-potearekin segida, Bertsolatari

HERNANI BERTSOLATA

Bertsolata ekimena martxan jarri zuen aurreko astean Hernaniko Bertso Eskolak, eta bihar izango du hurrengo ekintza. Arratsaldeko 18:30etan hasita, bertso-potea egingo dute, bertsolari ezberdinez lagunduta. Horrez gain, dagoeneko salgai dira herritar guztientzat Unai eta Eñaut Agirrek, Imanol Kamiorekin, Jexux Mari Irazurekin eta Joxan Goikoetxearekin batera eskainiko duten Auskalo zeinek jarriak emanaldirako sarrerak. Abenduaren 26an izango da emanaldia, arratsaldeko 19:00etan, Biterin. Sarrerak Dobera Euskara Elkartearen erosi daitezke, 7 euroan.

IRAGARKI MERKEAK

Sagardotegi garaian parrilan lan egiteko norbaiten bila gabiltza. Deitu: 659 48 92 02

Martxan dagoen alimentazio denda salgai, jubilazioagatik, Hernaniko Etxeberri auzoan.

Deitu: 647 886 950

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

JAI-ALAI
galarreta
ERREMONTE PARTIDUAK

ABENDUAK
19
Osteguna
16:00h

1. PARTIDA	Labaka Zubiri	Urtutia II Garces	TAKTO 35	2. PARTIDA	Ansa II Barrenetxea IV	Urtutia Endika	TAKTO 40
3. PARTIDA	Zoberio II Azpiroz	Juanenea Ion	TAKTO 40	4. PARTIDA	Aldabe Agirrezabala	Goikoetxea V Larrañaga	TAKTO 30

JAI-ALAI
ACTIVE
EXPERIENCE

ERRESERBAK
943 551 023

Galarreta Jai-Alai Pilotalekua Donostiatik 5 minutuz

www.galarreta-jai-alai.com

www.oriemendi2010.com

Facebook, Twitter, YouTube icons